

ANOETAKO ZAINZA EKOSISTEMAREN AZTERKETA SOZIODEMOGRAFIKOA

**65 URTETIK GORAKO BIZTANLERIAREN AZTERKETA
SOZIODEMOGRAFIKOA**



AURKIBIDEA

1.	Sarrera	3
2.	Errealitate soziodemografikoa	4
2.1	Biztanleriaren bilakaera	4
2.2	Biztanleria-dentsitatea	4
2.3	Biztanleria adin-tarte eta generoaren arabera	7
2.4	65 urtetik gorakoen errealitate soziodemografikoa, adin-tarteen eta generoaren arabera	8
2.5	65 urtetik gorakoen feminizazio-maila	8
2.6	Biztanleriaren bilakaera adin tartearen arabera (2001-2024)	10
3	Bilakaera demografiko naturala	11
3.1	Jaiotzak	11
3.2	Heriotza tasa	13
3.3	Hazkunde begetatiboa	15
3.4	Adin txikikoak adineko bakoitzeko	15
3.5	Biztanleriaren piramidea adin tartearen arabera (2001 eta 2022)	16
4	Biztanleria proiektzioak (2034)	17
4.1	Adin txikikoen bilakaeraren proiektzioa	17
4.2	Adinekoen bilakaeraren proiektzioa	18
4.3	Biztanleria orokorraren bilakaeraren proiektzioa	18
5	Mendekotasun egoeran dauden adinekoak	19
5.1	Mendekotasun egoeran dauden biztanleriaren aldera lurraldearen arabera	19
5.2	Biztanleria mendekotasun egoera aitortuta adin tartearen arabera	19
5.3	Mendekotasun egoeran dauden 65 urte eta gehiagokoak, generoaren arabera	21
5.4	Mendekotasun egoeran dauden adinekoen alderaketa historikoa lurraldearen arabera (2008-2024)	21
5.5	Mendekotasun egoeran dauden adinekoen alderaketa historikoa gradua eta generoaren arabera (2008-2024)	22
6	Desgaitasun balorazioa duten adinekoak	24
6.1	Desgaitasun balorazioa duen biztanleriaren aldera lurraldearen arabera	24

6.2 Desgaitasun balorazioa duen biztanleria adin-tartearen arabera	25
6.4 Desgaitasun graduren bat aitortua duten adinekoak generoaren arabera	28
7. Ondorio nagusiak.....	28
8. Etorkizuneko erronkak: Zahartzen ari den herri bat modu integratuan planifikatzea	30

1. Sarrera

Euskal Herriko biztanleriaren egitura, mendebaldeko herrialdeetan bezalaxe, zahartzen ari da eta gizartearen bilakaera demografiko honek ondorio ezberdinak dakartza berekin.

Indibidualismorako joera, bizi itxaropenaren handitzea, gain-zahartze tasaren gorakada, lotura komunitarioaren galera, familia ereduaren eraldaketa, emakumearen lan munduratzea eta gizonek maila berean etxeko eta zaintza ardurak hartu ez izana... eta bestelako gizarte eraldaketek aurrekaririk gabeko zaintzen krisi baten murgiltzea eragin dute. COVID 19ak ekarritako pandemia egoerak gainera, krisi honen sakontzea bultzatu dute eta zaintzak antolatzeke bestelako eredu baten beharra agerian utzi dute.

Gauzak honela, epe motz-ertainean ezinbestekoa izango da zaintzen antolaketa birplanteatu eta zaintza beharrei erantzuteko estrategiak, planak, baliabideak zein zerbitzuak (ber)diseinatzea, baita zaintza sare edo elkarlan publiko-komunitarioa artikulatzea ere. Alegia, zaintzak erdigunean jartzen dituen gizarte bat eraiki nahi badugu, ezinbestekoa izango da elkarrekin zaintzen inguruan hausnartu eta bestelako estrategia, antolaketa eta egiteko moduak definitzea.

Bide horretan, Anoetako Udalak, Zabalduz Kooperatibarekin elkarlanean, zaintzen gaur egungo antolaketa eraldatzeko helburua duen prozesu berri eta parte-hartzaile bat jarri du martxan.

Hurrengo orrialdeetan aurkituko duzuen Anoetako analisi soziodemografikoa hainbat ataletan egituratuta dago. Lehenik, biztanleriaren bilakaera eta egungo egitura soziodemografikoa aztertzen da, bai adin-tarte, dentsitateari eta feminizazio-mailari erreparatuta. Ondoren, bilakaera demografiko naturala (jaiotzak, heriotzak, hazkunde begetatiboa eta adin-txikikoen eta adinekoren arteko oreka) aztertzen da baita 2034rako biztanleria-proiekzioak aurkeztu ere. Azterketaren bigarren blokearen ardatza 65 urtetik gorako biztanleria da: mendekotasun-egoerak eta desgaitasun-balorazioa aztertzen dira, adin-tarte, gradu eta generoaren arabera xehetuta. Azterketa honen amaieran, ondorio nagusiak eta etorkizuneko erronkak jasotzen dira, Anoetako errealitate soziodemografikoaren irakurketa orokorra eskaintzeko eta zaintza-ekosistemaren etorkizunerako gako nagusiak eta eztabaida politiko eta komunitarioarako abiapuntua eskainiz.

2. Errealitate soziodemografikoa

2.1. Biztanleriaren bilakaera

1. Taula. Biztanleriaren bilakaera (2001-2024)							
	2001	2005	2010	2015	2020	2024	Haz. (%)*
EAE							
Gizonak	1.015.970	1.028.179	1.059.741	1.056.881	1.067.216	1.071.155	%5,43
Emakumeak	1.063.240	1.076.217	1.109.297	1.116.329	1.132.495	1.136.852	%6,92
Guztira	2.079.210	2.104.396	2.169.038	2.173.210	2.199.711	2.208.007	%6,19
Gipuzkoa							
Gizonak	329.695	335.815	343.741	347.752	352.084	352.845	%7,02
Emakumeak	342.739	348.005	356.573	362.239	368.374	369.979	%7,95
Guztira	672.434	683.820	700.314	709.991	720.458	722.824	%7,49
Anoeta							
Gizonak	868	901	947	1.012	1.051	1.069	%23,16
Emakumeak	829	850	892	946	979	1.013	%22,20
Guztira	1.697	1.751	1.839	1.958	2.030	2.082	%22,69

*Haz. (%) biztanleriaren hazkunde proportzionala= lehenengo urtea eta amaierakoaren artean

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika


Egungo biztanleriaren egoerari erreparatuz, Anoetako biztanleriaren hazkundera nabarmen handiagoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako batz bestekoekin alderatuta. EAEko eta Gipuzkoako lurraldeetan ere goranzko joera antzeman da, baina intentsitate maila ezberdinekin. Zehazki, Anoetaren kasuan, 2001etik 2024ra biztanleriak **%22,69ko hazkundera izan du**. Gipuzkoak %7,49ko hazkundera izan du eta EAEk, berriz, %6,19koa. Beraz, ikus dezakegu Anoeta nabarmen hazi egin dela. Generoari dagokionez, Anoetan gizonen proportzioa (%51,34) emakumeena (%48,66) baino pixka bat handiagoa da. Aldiz, fenomeno hori ez da gertatzen Gipuzkoan eta EAEn, non emakumeak gehiengoa diren.

2.2 Biztanleria-dentsitatea

Biztanleria-dentsitatea, udalerraren arabera. 2024

Guztira

Gipuzkoaren azalera 1.980 km²
Biztanleria osoa (Gipuzkoa) 719.875 (kop.)



Gipuzkoako biztanleria dentsitatearen eskala
(biztanleria osoaren kop./km²).

1. Irudia. Iturria: Behagi

Gipuzkoako biztanleriaren dentsitate mapari¹ erreparatzen badiogu, Donostia, Irun, Lasarte-Oria, Ordizia eta Zarautz bezalako hiri edo herri-eremuek biztanleria-kontzentrazio handia dutela ikus daiteke. Aldi berean, landa eremuko zonaldeetan, populazio dentsitate txikiagoa dago. Hau da, orokorrean, Donostia eta bere inguruko herri zehatzak kenduta, Gipuzkoako biztanleriaren dentsitatea nahiko baxua dela esan daiteke.

2. Taula. Biztanleria-dentsitatea eremuaren arabera (2024)

	Biz. N*	Km ²	Bizt./km ²
EAE	2.196.745	7.233 km ²	303,71 bizt./km ²
Gipuzkoa	719.875	1.980 km ²	363,57 bizt./km ²
Biztanleria-dentsitatea Anoeta eta Anoetaren inguruko udalerrien arabera (2024)			
Anoeta	2.082	4,13 km²	504,12 bizt./km²
Tolosa	20.099	37,93 km ²	529,90 bizt./km ²
Villabona	5.850	17,80 km ²	328,65 bizt./km ²
Irura	1.896	2,92 km ²	649,32 bizt./km ²
Gipuzkoan dentsitate altuena eta baxuenak dituzten udalerriak (2024)			
Lasarte-Oria (altuena)	19.133	6,01 km ²	3.201,2 bizt./km ²
Beizama (baxuena)	151	16,55 km ²	9,12 bizt./km ²

*Biztanleria osoaren zenbatekoa


Iturria. Behagi

¹ Biztanleriaren banaketa espaziala irudikatzen duen mapa tematikoa, kilometro karratuko biztanle kopurua adierazten duena.

Analisiarekin jarraituz, goiko taula honek (2.Taula) hainbat mailatan ematen den biztanleria-dentsitatea erakusten digu. Alde batetik, EAE-ko eta Gipuzkoako biztanleria-dentsitatea aurkezten dugu. Bestetik, Anoetako eta inguruko zenbait udalerrietako biztanle-dentsitatea jaso ditugu. Azkenik, Gipuzkoako biztanleria-dentsitate altuena (Lasarte-Oria=3.152,9 bizt/km²) eta baxuena (Beizama=8,2 bizt/km²) dituzten udalerrien datuak jasotzen ditugu bertan. Datu hauek guztiak baliozkoak izango zaizkigu Anoetako biztanleria-dentsitatea dimentsionatzeko.

Anoetako Biztanleria-dentsitatea 2024

Anoetaren azalera 4,13 km²
Biztanleria osoa (Anoeta) 2.082 (kop.)



Gipuzkoako biztanleria dentsitatearen eskala
(biztanleria osoaren kop./km²).

2.Irudia. Iturria: Behagi

2024ko datuen arabera, **Anoetak 504,12 biztanle/km²-ko** dentsitatea du. Hots, **kilometro karratuko 504,12 pertsona bizi dira udalerrian**, batez beste. Datu honek udalerriaren biztanleria kontzentrazio ertaina erakusten du, eta nabarmen handiagoa da bai Gipuzkoako (363,57 biztanle/km²) eta bai Euskal Autonomia Erkidegoko (303,71 biztanle/km²) bataz-bestekoekin alderatuta. Inguruko udalerrien biztanleria-dentsitatea kontuan izanda, ikus dezakegu Tolosako pareko dentsitatea du. Aldiz, gertuen duen udalerriarekin konparatuz, Irurarekin, azken honek 100 biztanle gehiago ditu kilometro karratuko. Anoetako egungo biztanleria-dentsitatea 2003koarekin alderatzen badugu (430,5 biztanle/km²), %17 baino zertxobait gehiago hazi dela ikusiko dugu. Beraz, biztanle gehiago daude eremu berebean.

Hori horrela, **Anoetaren kasua dentsitate ertain-altuko udalerri** baten adibide garbia da. Nahiz eta Gipuzkoako dentsitaterik handiena duen udalerritik (Lasarte-Oria, 3.201,2 biztanle/km²)

urrun egon, bere posizioa argia da EAEko udalerrien artean: espazioaren erabilera intentsiboagoa da hemen beste hainbat tokitan baino. Oro har, inguruko udalerriekin lerrokatuta dago, Tolosa edo Irura, esaterako, azken honen biztanleria-dentsitatea altuagoa izanda.

Laburbilduz, Anoetaren biztanleria-dentsitatea EAEko eta Gipuzkoako batz-bestekoaren gainetik dago nabarmen, eta horrek behar berriak sor ditzake udalerriko zaintzen antolaketaren eta bizi baldintzen ikuspegitik, hala nola, oinarritzko zerbitzuen (osasun zerbitzuak, eskolak, gizarte zerbitzuak, merkataritza...) egokitzapena edo garraio zein hirigintza-politiken egiturak berritzea.

2.3 Biztanleria adin-tarte eta generoaren arabera

3. Taula. Biztanleriaren datu soziodemografikoak adin tartearen eta generoaren arabera (2024)

	N	Guztira (%)	Ema. (%)	Giz. (%)	Genero Ratioa
0 eta 19 urte bitarteko pertsonak	445	%21,37	%44,72	%55,28	0,81
20 eta 64 urte bitarteko pertsonak	1.205	%57,88	%48,38	%51,62	0,94
65 urte eta gehiagoko pertsonak	432	%20,75	%53,47	%46,53	1,15
Biztanleria osoa	2.082	%100	%48,86	%51,14	0,97

Iturria: INE. Censo Anual de Población.

3. taula aztertuz, Anoetako osaera demografikoak biztanleria-egitura orekatua erakusten duela esan daiteke. Hala, azaletik begiratzuz, biztanleriaren proportzio handiena 20 eta 64 urte bitarteko adin-tartean kokatzen da (%57,88) eta horren baitan, genero-banaketa ia parekatua da, gizonen kopurua zertxobait altuagoa izanda. EAE eta Gipuzkoa mailan ez bezala, adin txikikoen proportzioa (%21,37) handiagoa da 65 urtetik gorakoena (%20,75) baino, nahiz eta aldea oso handia ez izan. Adingabeen kasuan ere, gizonezko gehiago daude emakumezkoak baino.


Gizonezkoen nagusitasun hori aldatzen da 65 urtetik gorakoaren artean, ordea. Adin tarte horretan emakumeak gehiengo dira, % 5eko aldearekin, **generoen arteko desberdintasunik handiena adin-tarte honetan nabarmenduz**. Datu hau emakumeen bizi-itxaropen luzeagoa eta adinekoen artean genero-desoreka demografikori esker azaltzen da, besteak beste. Izan ere, zahartzaroaren feminizazioa joera demografiko globala da herrialde garatueta, zeinetan emakumeak gehiengo dira 65 urtetik aurrera. Europan, Estatuan eta EAEn ikus daiteke fenomeno hori, esaterako. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, adinak zenbat eta gora egin, orduan eta zabalagoa da emakumeen eta gizonen arteko aldea. Fenomeno hau bereziki ikusten da adin handieneko pertsonen artean.

2.4 65 urtetik gorako en realitate soziodemografikoa, adin-tarteen eta generoen arabera

4. Taula. Adinekoen eta generoen arabeko biztanleria kopuru eta ehunekoa (2022)					
	N	Guztira (%)	Ema. (%)	Giz. (%)	Genero ratioa
65-74 urte	267	%12,84	%49,81	%50,19	0,99
75-84 urte	128	%5,77	%59,38	%40,63	1,46
≥85 urte	37	%2,07	%59,46	%40,54	1,47
Guztira	432	%20,7	%55,19	%44,81	1,25

Iturria: INE. Udal erroldaren estatistika

Esan bezala, adinean aurrera egin ahala, emakume proportzio altuagoa aurkituko dugu. 65-74 urte arteko adin tartean genero ratioa² 0,99koa da, hau da emakumeen eta gizonen proportzioa parekoa da. Aldiz, 75 eta 84 urtekoen artean alde hori handitzen da eta 85 urtetik gora genero ratioa 1,47 da. Hau da, adineko emakumeen kopurua gizonena baino askoz handiagoa da: ia 15 adineko emakume inguru 10 gizoneko. Hurrengo grafikoan modu argiago batean ikus dezakegu:



1. Grafikoa. Iturria: INE, Censo Anual Población

2.5 65 urtetik gorako en feminizazio-maila

Genero ikuspegitik aztertuta, dagoeneko ikusi dugu emakumeen presentzia nagusi dela gizonen presentziarekin alderatuz. Hala ere, xehetasun handiagoz ikusiko dugu, Anoetako adineko biztanleriaren feminizazio-indizearen bidez. Aldi berean, EAEko eta Gipuzkoako datuekin alderatuko dugu Anoetako errealitatea, ikuspegi zabalagoa izateko.

² Genero-ratioa: emakumezkoen kopurua gizonetzkoen kopuruarekiko zatituz lortzen den adierazlea da. Balioa 1 baino handiagoa bada, emakume gehiago daude; 1 baino txikiagoa bada, gizon gehiago.

5. Taula. 65 eta 85 urtetik gorako biztanleriaren feminizazio maila (%) eremu geografikoaren arabera					
	2005	2010	2015	2020	2024
EAE					
Feminizazio maila ≥ 65	%140,96	%139,23	%136,97	%135,29	%132,77
Feminizazio maila ≥ 85	%280,23	%253,36	%230,03	%214,47	%211,56
Gipuzkoa					
Feminizazio maila ≥ 65	%142,72	%139,81	%139,81	%132,56	%130,52
Feminizazio maila ≥ 85	%295,26	%261,01	%236,70	%221,54	%212,77
Anoeta					
Feminizazio maila ≥ 65	%121,98	%118,85	%117,91	%108,28	%114,93
Feminizazio maila ≥ 85	%320,00	%600,00	%272,73	%213,33	%146,67

Iturria: INE. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika

65 urtetik gorakoen artean, EAE eta Gipuzkoako datuekin alderatuz, Anoetak adineko emakume eta gizonen arteko proportzio orekatuagoa du. 2005. urtean, 122 adineko emakumeak zeuden 100 gizoneko. 2024an, aldiz, 114, proportzio are orekatuagoa. EAE eta Gipuzkoaren kasutan, joera murriztailea da baita ere, baina proportzionalki biztanleria feminizatuagoa dute. 2005ean, Gipuzkoan 142 emakume zeuden 100 gizoneko eta EAE mailan, aldiz, 140 100 gizoneko. 2024an, ordea, Gipuzkoan eta EAEn 130 emakume inguru daude 100 gizoneko. Beraz, nahiz eta emakumeak gizonetako kopurua gaitzen jarraitu adin-tarte honetan, **Anoetan desoreka demografikoa apaltzeko joera azkarragoa dugu, Gipuzkoa eta EAEkin alderatuz.**

85 urtetik gorakoen artean, desoreka historikoki nabarmenagoa izan da, eta Anoetako datuak bereziki esanguratsuak dira zentzu horretan. 2001ean 16 emakume zeuden 5 gizoneko, %320ko indizea, eta 2010ean indizeak maximoa jo zuen: %600. Bi ez ohiko egoera hauek atzean utzita, 2015etik aurrera Anoetako indizea EAE eta Gipuzkoako indizeak baino askoz baxuagoa izan da. Esaterako, 2024an kopuru hori %146ra jaitsi da. Gipuzkoan, indizea 295etik 214ra jaitsi da, eta EAE osoan 280tik 214ra. Hori ikusita, nahiz eta feminizazio fenomenoak presenteagoa egon adin tarte honetan, Gipuzkoa eta EAEko datuekin konparatuz, Anoetan feminizazio indizearen jaitsiera nabarmenagoa izan da. Honek **emakumeen bizi-itxaropenak altua izaten jarraitzen duela erakusten digu, baina baita gizonen bizi-itxaropenean hobekuntza nabarmen bat eman dela ere.**

Oro har, **Anoetako adinekoen artean emakumeen nagusitasuna nabarmena izaten jarraitzen duela esan daiteke, bereziki 85 urtetik gorakoetan, nahiz eta feminizazio indizea azken bi hamarkadetan nabarmen jaitsi den.** EAE eta Gipuzkoarekin alderatuta, Anoetan orekatze-prozesua azkarragoa izaten dela ere ikusi dezakegu. Hiru kasutan, nahiz eta abiadura ezberdinetan izan, orekatze-prozesu hori ematen da.

2.6 Biztanleriaren bilakaera adin tartearen arabera (2001-2024)

Jada badakigu zein den Anoetako biztanleriaren egungo irudia eta baita zein den generoaren eta adin-taldeen arabera desglosea ere. Baina, zein izan da joera egungo egoerara iristeko? Anoeta zahartzen ari al da? Galdera hauei erantzuteko biztanleriaren bilakaeraren irudi osatuagoa behar dugu.

1. taulan ikusi dugunez, Anoetako biztanleria %22,69 hazi da 2001etik. Jarraian, hazkunde hori nola banatu den eta zer adin-taldetan banatu den ikusiko dugu.

6. Taula. Biztanleriaren bilakaera adin tartearen arabera (2001-2024)													
Anoeta	2001		2005		2010		2015		2020		2024		Haz (%)
	N	Guztira (%)	N	Guztira (%)	N	Guztira (%)	N	Guztira (%)	N	Guztira (%)	N	Guztira (%)	Haz (%)
0-19 urte	388	%22,9	368	%21,0	405	%22,0	439	%22,4	452	%22,3	445	%21,4	%-6,5
20-64 urte	1112	%65,5	1182	%67,5	1167	%63,5	1227	%62,7	1239	%61,0	1205	%57,9	%-6,9
≥ 65 urte	197	%11,6	201	%11,5	267	%14,5	292	%15,0	339	%17,0	432	%20,7	%78,5
Guztira	1.697		1.751		1.839		1.958		2.030		2.082		

*Haz. (%) adin-taldearen ehunekoaren pisuaren aldea biztanleria osoarekiko (2001-2024)

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika

Urte bakoitzeko bilakaerari erreparatuz, adin-talde guztiek biztanleria handitu dutela nabaritutako dugu, Anoetak etengabeko hazkundea izan baitu azken bi hamarkadetan.

Beraz, irudi osoago bat izateko, ehunekoak aztertuko ditugu. Horrela ziurtatuko dugu nola urteetan zehar, 0-19 eta 20-64 urte arteko taldeek pisu orekatua izan dute. Izan ere, 2001 urtetik aurrera 0-19ko adin tartea %21-%22 bitartean mugitu da eta 20-64 urte artekoa, berriz, %65-%60 artean. Azken kasu honetan jaitsiera nabarmenagoa izan da eta 2024an, Anoetako biztanleria osoaren %57,9 izan zen.

Baina dudarik gabe, aldaketa nagusia topatzen dugu adinekoen adin tartean. 2001etik aurrera etengabeko hazkundea izan du. 2001ean, Anoetako biztanleria osoaren %11 pasata izanetik, 2024an %20,7 izatera iritsi da. **Adinekoen kopurua bikoiztu da hogei urteetan.** Izan ere, "Haz (%)" zutabearen ikus dezakegu adin-talde bakoitzak biztanleria osoarekiko duen pisuaren aldaketa 2001 eta 2024 urteen artean. Lehenengo bi taldeek biztanleria galtzen duten bitartean (%6,5 eta %6,9ko galera, hurrenez hurren), adinekoen adin tartea % 78 egiten du gora.

Laburbilduz, adin txikien adin taldeak pisu pixka bat galdu arren, egonkor mantentzen da urteetan zehar eta goranzko joera ikusten da. Aitzitik, 65 urtetik gorako pisua nabarmen handitu da Anoetako biztanleria osoarekiko. Hitz gutxitan, adinekoen bolumena nabarmen ari da handitzen eta **Anoetako biztanleria zahartzen ari da.**

3 Bilakaera demografiko naturala

3.1 Jaiotzak

7. Taula. Jaiotza kopurua, jaiotze tasa eta ugalkortasun tasen bilakaera							
	2000	2005	2010	2015	2020	2024	Hazkundera (%)
EAE							
Gizonak	8.950	10.112	10.814	9.732	7.643	6.586	% -26,41
Emakumeak	8.366	9.603	10.345	9.119	7.096	6.351	% -24,09
Guztira	17.316	19.715	21.159	18.851	14.739	12.937	% -25,29
Gipuzkoa							
Gizonak	3.114	3.536	3.667	3.198	2.586	2.278	% -26,85
Emakumeak	2.897	3.265	3.548	3.163	2.438	2.144	% -25,99
Guztira	6.011	6.801	7.215	6.361	5.024	4.422	% -26,43
Anoeta							
Gizonak	10	11	13	11	15	8	% -20,00
Emakumeak	8	12	10	15	6	7	% -12,50
Guztira	18	23	23	26	21	15	% -16,67
Jaiotzen tasa gordina*	%10,50	%12,90	%12,40	%13,30	%10,10	%7,20	%-31,43
Ugalkortasun-tasa**	%21,70	%26,70	%25,70	%27,5	%20,80	%14,8	%-31,94

*Jaiotzen tasa gordina (1.000 biztanleko)

** Ugalkortasun-tasa (1.000 biztanleko)

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika

Anoetako jaiotza kopuruaren bilakaera aztertuta, azken 24 urteetan gorabehera azpimarragarriak nabari dira. 2000. urtean 18 jaiotza izan ziren guztira, eta kopuru hori igo zen 2005 eta 2010ean (23 jaiotza bakoitzean), 2015koa azken hamarkadako maximoa izanik (26 jaiotza). 2024an jaiotza kopurua 15 jaiotzatara jaitsi eta 2000ko datuarekin konparatzean baxuagoa den arren, azken urteetako datuek erakusten dute jaiotza kopurua egonkortu egin dela urtero hogeitaz jaiotzetatik gora. Interesgarria izango da hurrengo urteen bilakaera aztertzea ziurtatzeko hori joera orokorra edo salbuespen bat izan den.

Gipuzkoa eta EAEko datuekin alderatuta, Anoetaren jaiotza kopuru jaitsiera ez da hain nabarmena. EAEko jaiotza kopurua %25,29 jaitsi da 2000 eta 2024 artean, eta Gipuzkoakoa %26,43. Bi kasu hauetan, ikus dezakegu izandako jaiotza kopuru maximoa 2005, 2010 eta 2015 urteen artean izan den, Anoetarekin lerrokatua. Horrek adierazten du goranzko joera orokorra hiru mailetan. Hiru kasutan, 2015etik aurrera, jaiotze kopuru beherakada nagusitzen da.

Jaiotzen tasa gordinari dagokionez, hau da, 1.000 biztanleko jaiotza kopurua, azken bi hamarkadatan izandako batez besteko tasa %11,06-koa izan da. Tasa hori baxua da. 2000 urtetik Anoetak izan duen tasa altuena ere, 2015ean %13,3arekin, baxua da. Mugarri


horretatik aurrera beheranzko joera nagusitu da, beste behin. Esaterako, 2024an % 7,2ko tasa eman da, eman den baliorik baxuena. Ondorioz, azken bi hamarkadetako datuak erreparatuz, nahiz eta EAE eta Gipuzkoarekin alderatuz batz besteko tasa pixka bat altuagoa izan, Anoetak jaiotza-tasa beherako joera izaten ari du nabarmen.

Ugalkortasun-tasa, hau da, 1.000 emakumezko bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua, 2005ean %21,7ekoa izan zen Anoetan. Jaiotza tasarekin lerrokatua, 2005etik 2015era maximoak jo zituen, eta hortik aurrera jaitsiera progresiboa izan du. 2005ean eta 2015ean tasak %26,7 eta %27,5 izan ziren hurrenez hurren, eta 2024ean %14,8-ra iritsi da. Bilakaera honek, azken urteetan Anoetako ugalkortasun-tasak beheranzko norabidea hartu duela adierazten digu, eta horrek eragin nabarmena izan dezake bereziki familia egituren eraldaketan.

Generoaren arabera banaketa kontuan hartuta, 2000. urtetik gizonezkoen jaiotza kopurua nagusitzen da, nahiz eta bi generoen arteko jaiotza kopuruen bilakaera ez den modu esanguratsuan desorekatua izan. Adibide batzuk aipatzearren, 2005 eta 2015. urteetan izan ziren emakumezkoen jaiotza kopuru altuagoak (12 emakume eta 11 gizon, 15 emakume eta 11 gizon, hurrenez hurren). Aldiz, 2020ean eman zen alde zabalena gizonezkoen eta emakumezkoen arteko jaiotzan: 15 gizon, 6 emakume.

Laburbilduz, urte batzuetan gizonezkoen jaiotza kopurua handiagoa izan da, eta beste batzuetan, berriz, emakumezkoena izan da nagusi. Ondorioz, azken urteetako datuek bi generoen arteko jaiotza kopuruen bilakaera ez dela modu esanguratsuan desorekatua izan erakusten dute, eta horrek genero banaketaren egonkortasuna iradokitzen du udalerrian.

Hurrengo irudiari erreparatuz gero, Anoetan jaiotza kopuruaren bilakaerak izan dituen joera nagusiak modu argiago eta bisualagoan azter daitezke.



2.Grafika. Iturria: Behagi.

Irudiak Anoetako jaiotza kopuruaren bilakaera modu bisualean aurkezten digu, eta aurretik azaldutako datuak osatzeaz gain, genero bakoitzaren joeren arteko aldeak eta urtez urteko gorabeherak modu intuitiboan interpretatzeko aukera ematen digu. Irudiak ez du soilik kopuruen bilakaera erakusten, baizik eta genero arteko desoreka uneak, oreka egoerak eta gorabehera nagusiak identifikatzeko tresna gisa ere balio du, ikuspegi soziodemografikoan sakontzeko baliagarria bihurtuz.

3.2 Heriotza tasa

8. Taula. Heriotza-tasaren bilakaera, generoaren arabera (%)							Hazkundera (%)
	2000	2005	2010	2015	2020	2024	
Gizonak	%14,81	%6,51	%11,51	%4,93	%10,22	%4,66	% -68,50
Emakumeak	%3,62	%5,80	%6,71	%7,42	%7,93	%6,90	% 90,57
Guztira	%9,21	%6,15	%9,11	%6,17	%9,08	%5,78	% -37,26

*Heriotza-tasa gordina (1.000 biztanleko)

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika

Anoetako heriotza-tasaren bilakaerari erreparatuta, ez da joera lineal edo etengabea antzematen azken bi hamarkadetan, baina zenbait aldaketa esanguratsu nabari dira generoaren arabera. 2000. urtean tasa orokorra %9,21 zen, eta 2024an %5,78ra jaitsi da. Hau da, 2000. urtearekin alderatuta %37 ko jaitsiera izan du heriotza-tasak.


Aldagai honen gauzarik esanguratsuena, ordea, azaltzen zaigu generoaren araberako datuei erreparatuta. Emakumezkoen heriotza-tasak eta gizonezkoen heriotza-tasak oso joera ezberdinak izan dituzte urteotan.

2000. urtean, gizonen heriotza-tasa emakumezkoena baino askoz handiagoa izan da (%14,81 eta %3,62 hurrenez hurren). 2024an, aldiz, emakumeen heriotza-tasa zertxobait altuagoa izan da (%6,90 emakumeen kasuan eta %4,66 gizonen kasuan).

Hala ere, 2000 eta 2024 bitarteko aldaketa portzentualari erreparatuta, gizonen heriotza-tasak %68,50-eko jaitsiera izan du eta emakumeen kasuan % 90,57-eko igoera gertatu den bitartean. Izan ere, emakumeen heriotza-tasa bikoiztu da bi hamarkada hauetan zehar, igoera nabarmena erakutsiz. Hala ere, 2024ko emakumeen heriotza-tasa 2020 eta 2015eko urtekoenak baino baxuagoa da.

Laburbilduz, biztanleriaren bizi-itxaropena luzatu dela ondoriozta daiteke, heriotza-tasa orokorraren jaitsiera esanguratsuak horren adierazle da. Izan ere, 2000 eta 2024 urteen artean heriotza-tasa orokorrean %37,26 jaitsi da. Aitortu behar da, halabaina, Anoetan azken bi hamarkadetan heriotza-tasa murriztu bada, gizonen heriotzen jaitsierari esker izan da. Izan ere, gizonen %68,50ko heriotza-tasaren jaitsierak orekatu du emakumeen tasa altua.

Esan bezala, heriotza-tasaren murrizketak, oro har, bizi-itxaropenaren luzapena adierazten du, populazioak urte gehiago bizitzeko aukera duela iradokiz. Joera horrek lotura izan dezake bizi-ohituren hobekuntzarekin, prebentzio-neurrien eraginkortasun handiagoarekin eta osasun-arretaren kalitatean izandako aurrerapenekin. Tradizionalki, emakumeek bizi-itxaropen handiagoa izan dute, hain zuzen ere, ohitura hobekin eta nork bere burua gehiago zaintzearekin lotuta. Baliteke pixkanaka gizonen ohitura horiek hartzea edo gehiago zaintzea eta emakumeen bizi-itxaropen mailara gerturatzea.



3.Grafika. Iturria: Behagi

Aurreko irudiari esker, Anoetako heriotza-tasaren bilakaera modu bisualean interpretatu dezakegu. Aurreko taulan azaldutako datuak osatzeaz gain, genero bakoitzaren joeren arteko aldeak eta urtez urteko gorabeherak modu argiagoan interpretatzeko aukera eskaintzen du.

3.3 Hazkunde begetatiboa

Hazkunde begetatiboa jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen emaitza da, eta biztanleriaren hazkunde edo galera naturala nolako den erakusten duen adierazle nagusietako bat da. Adierazle honek, besteak beste, udalerrriaren barruko dinamika demografikoa ulertzeko balio du, migrazio fluxuek eragindako kanpoko aldaketak kontuan hartu gabe.

9. Taula. Hazkunde begetatiboaren bilakaera (2000-2024)						
	2000	2005	2010	2015	2020	2024
Anoeta	2	12	6	14	2	3

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Goiko taulako datuen arabera, **2001 eta 2024 artean Anoetan beti izan du hazkunde begetatibo positiboa**. Hau da, jaiotza kopurua heriotzena baino handiagoa izan da momentu oro. Hau bereziki esanguratsua da Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan. Izan ere, gero eta udalerrri gehiagok emaitza negatiboak dituzte adierazle honetan.

Aitortu behar da, ordea, joera aldakorra eta azken urteetan beheranzko joera erakusten duela. Hazkundera zero ingurukoa da aztertutako sei urteetatik hirutan. Kontran, igoera handienak 2005 eta 2015 urteetan izan ziren. Hau da, urte horietan 12 eta 14 pertsona gehiago jaio ziren hil zirenak baino.

Laburbilduz, **Anoetako hazkunde begetatiboa positiboa izan da azken bi hamarkadetan, baina balioek erakusten dute egonkortasunetik beheranzko inertzia baterantz mugitzeko joera badagoela eta hazkundera zerokoa izatea izan daitekeela hurrengo urteetan.**

3.4 Adin txikikoak adineko bakoitzeko

Hurrengo taulan, 65 urtetik gorako bakoitzeko adin txikikoen ratioari³ erreparatuko diogu historikoki eta hainbat mailatan:

³ Ratioak erakusten digu zenbat adingabe dauden adineko pertsona bakoitzeko. Ratioa 1 bada, adingabeen eta 65 urtetik gorako en proportzioa orekatuta dago. Zenbat eta handiagoa izan balioa, orduan eta txikiagoak izango dira adin handiagoko bakoitzeko. Ratioa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta adingabe gutxiago handizkako. Adibidez, ratioa 0,7 bada, 7 adingabe daude 10 adineko bakoitzeko.

10. Taula. Adin txikikoen ratioa 65 urtetik gorako bakoitzeko						
	2001	2005	2010	2015	2020	2024
EAE	0,97	0,91	0,90	0,86	0,81	0,74
Gipuzkoa	1,01	0,96	0,96	0,91	0,85	0,77
Anoeta	1,97	1,83	1,52	1,50	1,33	1,03


Iturria: Zabalduz, EUSTATen datuetan oinarrituta. Udal erroldaren estatistika

Aipatu dugun zahartze prozesu hori izan arren, Anoetan aurki ditzakegun adin txikikoen datuek hautsi egiten dute EAEn eta Gipuzkoan dugun dinamika orokorrarekin. Ikus dezakegunez, EAEn eta Gipuzkoan ratioa negatiboa da, hau da 1etik beherakoa. Horrek adierazten du adingabe gutxiago daudela adineko pertsona bakoitzeko (7 adingabe inguru 10 adineko bakoitzeko).


Anoetaren kasuan, ordea, proportzioa orekatuagoa dago. Izan ere, adingabeen pisua adinekoena baino zertxobait handiagoa da. Bereziki azpimarragarria 2001eko kasua: 2001ean adingabeen kopurua ia bikoizten zuen 65 urtetik gorakoen kopurua. Gaur egun, zifra 1,03ko ratoria murriztu da.

Hitz gutxitan, EAEko eta Gipuzkoako ratio eta historikoak ikusita, Anoetako egoera ez da bi hauena bezain kezkagarria baino, hala ere, arreta jarri behar zaio. Hiru mailetan bilakaerari erreparatzen badiogu, hiru kasutan ratio horiek nabarmen murriztu dira. Joera argia da: gero eta adin txikiko gutxiago daude adinekoekin konparatzen badugu.

3.5 Biztanleriaren piramidea adin tartearen arabera (2001 eta 2022)



4.Grafika. Iturria: Behagi



5.Grafika. Iturria: Behagi

Hurrengo grafikoetan 2001ean Anoetako biztanleriaren piramideak nola egituratzen zen ikus daiteke. biztanleriaren egitura bisualki aurkezten du, adin-tarteen eta generoaren arabera. Irudi honek aurreko atalean azaldutako joerak modu bisualean erakusten ditu, eta baita bestelako gako batzuk agerian utzi ere:


Bi piramideen alde esanguratsuenei dagokionez, 2022koan piramidearen oinarria (0-18) zabaltzen da. Horrek adierazten du adin txikikoen kopurua hazi dela 2001ekoarekin konparatuz. Era berean, bi piramideen goialdean, argi ikus daiteke emakumeak gehiengo nabarmena direla ≥ 65 urteko adinekoen taldean. 2022ko piramidean ikus dezakegu nola 65 urtetik gorako tarteak zabaltzen da. Zabalkuntza hori ikus daiteke 60 urtetik gora (*baby boom* belaunaldia).

Aztertu berri dugun errealitate honek ondorio esanguratsuak izan ditzake zaintza-beharren, bakardade-arriskuaren eta osasun-politiken ikuspegitik, eta aldi berean generoaren araberako ikuspegi zehatzagoa eskatzen du adinekoen arretarako estrategiak garatzerakoan.

4. Biztanleria proiektzioak (2034)

2001etik eskuragarri dauden datuak oinarri hartuta, biztanleriak 2034ra arte izango duen bilakaeraren proiektzioak egin dira. Estimazioak % 95eko konfiantza-mailarekin aurkezten dira, eta konfiantza-tartearen goiko eta beheko mugak adierazten dituzte.

4.1 Adin txikikoen bilakaeraren proiektzioa




6. Grafika. Iturria: Zabalduz, Eustat datuen oinarrian

2034ko adingabe kopuruaren aurreikuspenari dagokionez, orain arteko joera aztertuta, hamar urtean Anoetan 499 adin txikiko inguru egongo direla kalkulatu da. 2024tik % 10eko igoera eta 2021etik % 28,61ekoa. Joera goranzkoa eta iraunkorra izatea espero da.

4.2 Adinekoen bilakaeraren proiektzioa


Hazkunde handiena aurreikusten da 65 urtetik gorakoen adin tartean. 2034an 724 adineko inguru egongo lirakeke Anoetan, egungo adinekoen kopurua ia bikoiztuz. Horrek esan nahi du %65eko igoera izan dela egungo kopuruarekiko, eta %267ko igoera nabarmena 2001arekiko.



7. Grafika. Iturria: Zabalduz, Eustat datuen oinarrian

4.3 Biztanleria orokorraren bilakaeraren proiektzioa

Biztanleria orokorrari dagokionez, aurreikusten den hazkunde mugatuagoa da. Biztanleria % 10 baino zertxobait gutxiago haziko lirakeke egungo biztanleriarekin alderatuta, eta % 37 2001. urtearekin alderatuta. Honek adierazten du erritmo ezberdinetan zabaltzen ari direla adin-tarteak, oreka apurtuz.



8. Grafika. Iturria: Zabalduz, Eustat datuen oinarrian

4 Mendekotasun egoeran dauden adinekoak

5.1 Mendekotasun egoeran dauden biztanleriaren aldera lurraldearen arabera

11. Taula. Mendekotasun-egoeran dagoen biztanleria lurraldearen arabera (2008-2024)						
	2008			2024		
	N	%	Biz. N*	N	%	Biz. N*
Anoeta	36	1,99%	1.811	57	2,74%	2.082
Tolosaldea	1.215	2,69%	45.201	1.971	4,04%	48.797
Gipuzkoa	18.359	2,62%	701.056	30.537	4,18%	729.722

Iturria: Behagi

2008 eta 2024 urteen arteko epean, Anoetako, Tolosaldeko eta Gipuzkoako mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bilakaerak **goranzko joera argia** erakusten du. **Anoetan**, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen portzentajea % 1,99tik % 2,74ra igo da, eta horrek bai mendekotasun kasuen hazkundera, bai biztanleria osoaren handitzea adierazten du. Nahiz eta ehuneko hori beste lurralde batzuetan baino txikiagoa izan, **hazkundera esanguratsua da**, eta tokiko zaintza-beharren gorakada islatzen du.

Tolosaldean, igoera are handiagoa izan da: % 2,69tik % 4,04ra, eta Gipuzkoan antzeko joera ikusten da, % 2,62tik % 4,18ra igo baita. Bi kasuetan, hazkundera Anoeta baino handiagoa izan da eta horrek maila geografiko gertuenean, mendekotasunaren presentzia gero eta handiagoa dela erakusten du. Hazkunde horiek ez dira soilik adinekoen kopuruaren igoerarekin lotu behar ordea, mendekotasuna egoerak adin tarte guztietan eman baitaitezke. Aldi berean mendekotasun-egoeren diagnostikorako zerbitzuaren aitortza eta garapena ere kontuan izan behar dira.

5.2 Biztanleria mendekotasun egoera aitortuta adin tartearen arabera

Hurrengo taulan ikusiko dugunez, mendekotasunari buruz hitz egitean biztanleria talde bat nagusitzen da, adinekoena. Eta hauen artean, bereziki 80 urte goratik direnak. Datorren atalean mendekotasunaren presentzia Anoetan jorratuko dugu, batez ere adinekoekin lotuz, hori baita mendekotasun-egoera gehien dituen adin taldea.


12. Taula. Anoetan mendekotasun-egoeran dagoen biztanleria (2008-2024)						
	2008			2024		
	N	%	Biz. N	N	%	Biz. N
0-5 urte	2	1,61%	124	1	1,23%	118
6-17 urte	0	0,00%	232	4	1,43%	290
18-64 urte	13	1,07%	1.220	12	0,95%	1.242
65-79 urte	11	6,47%	170	23	6,39%	339

80 urte eta gehiago	20	30,77%	65	48	37,80%	93
Adin guztiak	46	2,54%	1.811	88	4,16%	2.082

Iturria: Behagi, INE

2008 eta 2024 urteen arteko epean, Anoetako mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bilakaerak **goranzko joera argia** erakusten du. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen portzentajea **% 2,54tik % 4,16ra igo da**, ia bikoiztu da, alegia. Horrek bai mendekotasun kasuen hazkundera, bai biztanleria osoaren handitzea adierazten du. Adin taldeei buruz ari bagara, 80 urtetik gorako adin taldeak izan du igoera nabariena. 2001ean adin tarteko horren %30,77k zuen mendekotasun graduren bat. 2024an, berriz, %37,80k.

Adin-tartearen arabera aztertzen baditugu mendekotasun-egoera kasuak joera argi bat nabarmentzen da: **adinak gora egin ahala, mendekotasun-tasa nabarmen handitzen da**, eta 2024an, aurreko urteekin alderatuta, igoera hori are agerikoagoa da. Hurrengo irudiak argi uzten du 65 urtetik gorako pertsonen mendekotasunaren hazkundera nabarmena izan dela, bereziki 80 urte gorako artean.




8. Grafika. Iturria: Zabalduz, Behagi datuen oinarrian

2024an Anoetan mendekotasun-egoeran zeuden %80,68 65 urtetik gorakoa zen. Mendekotasun-egoera horiek ematen dira batez ere 80 urte baino gehiago dituzten adinekoen artean. Izan ere, **Anoetako 80 urtetik gorako artean, %37,80k pairatzen du mendekotasun graduren bat.** Datu honek berresten du adinekoen artean mendekotasuna errealitate estrukturala dela.

Ondorio gisa, datuek agerian uzten dute mendekotasun-egoerak gero eta presentzia handiagoa duela gure gizartean orokorrean eta adinekoen artean zehazki, eta horrek erronka berriak planteatzen ditu zaintza-sistemen antolaketan eta baliabideen banaketan. Anoetako mendekotasunaren banaketa adinaren arabera aztertzeak zaintza-politikak bizitzaren ziklo osoa kontuan hartuta diseinatu behar direla erakusten du, eta genero-ikuspegia ere ezinbestekoa dela.

5.3 Mendekotasun egoeran dauden 65 urte eta gehiagokoak, generoaren arabera



9. Grafika. Iturria: Zabalduz, Behagi datuen oinarrian

Grafikoak argi erakusten du **mendekotasunaren hazkundera adinarekin batera areagotzen dela**, aipatu den bezala, eta **emakumeen artean nabarmenagoa** dela, bereziki mendekotasun gradu altuetan. Hala ere, aipatzekoa da gizonen kasuan, mendekotasun-graduak areagotu egin direla, batez ere 65-79 urteko adin-tartean. Horrek berresten du zaintza-sistemen planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko premia, emakumeek mendekotasun-egoeran bizitzeko aukera handiagoa dutelako, eta aldi berean, zaintza-lanetan ere gehienetan haiek aritzen direlako.

5.4 Mendekotasun egoeran dauden adinekoen alderaketa historikoa lurraldearen arabera (2008-2024)

13. Taula. Mendekotasun egoeran dauden adinekoen errealitatea (2008-2023)

	2008			2024		
	N	%	Biz. N*	N	%	Biz. N*
Anoeta ≥65	28	11,91%	235	45	10,42%	432

Tolosaldea ≥65	948	12,22%	7.755	1.483	13,98%	10.610
Gipuzkoa ≥65	18.359	14,96%	128.911	30.537	19,03%	172.682

Iturria: Behagi

2008 eta 2024 urteen arteko epean, Tolosaldean eta Gipuzkoan **65 urtetik gorako mendekotasun egoeran dauden pertsonen ehunekoak gora egin du**. Kontrakoa gertatu da, ordea, Anoetan. Anoetan, mendekotasun-tasa %11,91tik %10,42ra jaitsi da. Tolosaldean ia bi puntu igo da tasa, %12,22tik %13,98%ra. Gipuzkoak izan du igoera esanguratsuen: %14,96tik %19,03ra.

5.5 Mendekotasun egoeran dauden adinekoen alderaketa historikoa gradua eta generoaren arabera (2008-2024)

2008 eta 2024 urteen arteko bilakaerak Anoetan mendekotasun egoerek duten adineko pertsonen artean mendekotasun graduak eta generoaren arabera banaketa nabarmen aldatu dela agerian uzten digu.

14. Taula. Mendekotasun egoeran dauden adinekoen bilakaera gradua eta generoaren arabera (2008-2024)							
		2008			2024		
		N	%	Biz	N	%	Biz
I gradua							
Gizonak	65-79 urte	2	2,30%	87	2	1,25%	160
	80 urte eta gehiago	1	5,56%	18	6	14,63%	41
Emakumeak	65-79 urte	3	3,61%	83	3	1,68%	179
	80 urte eta gehiago	5	10,64%	47	9	17,31%	52
Guztira	65-79 urte	5	2,94%	170	5	1,47%	339
	80 urte eta gehiago	6	9,23%	65	15	16,13%	93
II gradua							
Gizonak	65-79 urte	0	0,00%	87	2	1,25%	160
	80 urte eta gehiago	1	5,56%	18	5	12,20%	41
Emakumeak	65-79 urte	0	0,00%	83	1	0,56%	179
	80 urte eta gehiago	2	4,26%	47	9	17,31%	52
Guztira	65-79 urte	0	0,00%	170	3	0,88%	339
	80 urte eta gehiago	3	4,62%	65	14	15,05%	93
III gradua							
Gizonak	65-79 urte	0	0,00%	87	2	1,25%	160
	80 urte eta gehiago	0	0,00%	18	2	4,88%	41
Emakumeak	65-79 urte	5	6,02%	83	1	0,56%	179
	80 urte eta gehiago	9	19,15%	47	3	5,77%	52
Guztira	65-79 urte	5	2,94%	170	3	0,88%	339

	80 urte eta gehiago	9	13,85%	65	5	5,38%	93
Edozein gradu							
Gizonak	65-79 urte	2	2,30%	87	6	3,75%	160
	80 urte eta gehiago	2	11,11%	18	13	31,71%	41
Emakumeak	65-79 urte	8	9,64%	83	5	2,79%	179
	80 urte eta gehiago	16	34,04%	47	21	40,38%	52
Guztira	65-79 urte	10	5,88%	170	11	3,24%	339
	80 urte eta gehiago	18	27,69%	65	34	36,56%	93

Iturria: Behagi eta INE

2008 eta 2024 urteen arteko bilakaerak erakusten du Anoetan 65 urtetik gorako pertsonen artean mendekotasun-egoerak gora egin duela, bereziki 80 urtetik gorako artean, eta aldi berean aldatu egin dela mendekotasun graduen eta generoaren arabera. Datuen arabera, 80 urtetik gorako gizonen kasuan 2 kasutik 13 kasura igo dira mendekotasun-graduren bat aitortuta dutenak, eta horrek esan nahi du talde horretako gizonen heren bat inguruk mendekotasun-mailaren bat duela. Emakumeen kasuan ere oso prebalentzia altua ematen da: 21 emakume nagusik dute mendekotasun-graduren bat, 80 urtetik gorako %40,38 inguru.

Graduen arabera prebalentziari so eginez, ikusten da kasu gehienak mendekotasun arinago eta ertainagoetan kontzentratzen direla, hau da, **I. eta II. graduetan**. Lehen graduan, 80 urtetik gorako artean igoera argia izan da, bai gizonen bai emakumeen artean: gizonen artean 1 kasutik 6 kasura igaro dira, eta emakumeen artean 5 kasutik 9 kasura. II. graduako mendekotasunean ere hazkunde nabarmena dago, batez ere 80 urtetik gorako emakumeen artean, 2008ko kasuak hirukoiztu eta portzentajea ere esanguratsuki handitu da. 65-79 urte arteko taldean, aldiz, I. eta II. graduetak kasu-kopurua txikiagoa da eta prebalentziak ez du hainbesteko hazkunderik izan, edo zertxobait jaitsi ere egin da.

Kontrara, **III. graduako mendekotasunak**, mendekotasun-egoera larrienak adierazten dituenak, beharazko joera erakusten du. 2008an, 65 urtetik gorako artean 3. gradua aitortuta zutenen batez besteko portzentajea %13,85 zen, eta 2024an %5,38ra jaitsi da. Bereiziki esanguratsua da 80 urtetik gorako emakumeen kasua: 2008an talde horretako emakumeen %19,5ek 3. gradua aitortuta bazuten, 2024an %5,77ra jaitsi da. Horrek adierazten du mendekotasun larrien pisua txikitu egin dela, eta gaur egun mendekotasun-maila arinagoak eta ertainak (I. eta II. graduak) nagusitzen direla.

Azkenik, gradu guztiei batera begiratuta (I., II. eta III. graduak kontuan hartuta), berriro ikusten da **80 urtetik gorako gizonen egoera** nabarmen gogortu dela: 2 kasutik 13 kasura igaro dira, eta

mendekotasun-graduren bat dutenen portzentajea %11 ingurutik %31,71ra igo da. Emakumeak izaten jarraitzen dute mendekotasun-mailarik altuenak dituztenak, baina datuek erakusten dute mendekotasuna gero eta gehiago dela bai gizonen bai emakumeen artean zahartzaroan agertzen den errealitate estrukturala, eta horrek genero-ikuspegia eta adinaren dimentsioa uztartzen dituen zaintza-politika espezifikoak eskatzen dituela.

5 Desgaitasun balorazioa duten adinekoak

6.1 Desgaitasun balorazioa duen biztanleriaren aldera lurraldearen arabera

15. Taula. Desgaitasun balorazioa duen biztanleria lurraldearen arabera (2008-2024)

	2008			2024		
	N	%	Biz. N*	N	%	Biz. N*
Anoeta	125	6,90%	1.811	134	6,43%	2.082
Tolosaldea	3.369	7,45%	45.201	3.652	7,48%	48.797
Gipuzkoa	50.224	7,16%	701.056	66.684	9,14%	729.722

Iturria: Behagi, INE

Taulako datuek erakusten dute **desgaitasun balorazioa duten pertsonen portzentajea jaitsi dela** azken hamasei urteetan Anoetan (%6,90tik %6,43ra). Kopuruari dagokionez, desgaitasuna aitortua duten pertsonen kopurua igo da, biztanleria orokorrean igo den neurrian. Hala ere, Desgaitasuna aitortua duten pertsonen kopurua mantsoago igo da biztanleriak orokorrean izan duen igoerarekin konparatuz.

Bestalde, Tolosaldean eta Gipuzkoan kopurua zein portzentajea igo egin dira. Tolosaldearen kasuan modu anekdotiko batean (%7,45tik %7,48ra) eta Gipuzkoari dagokionez, nabarmen (%7,16tik %9,14ra).

Aitortutako desgaitasunen bat duten **adinekoen kasuan**, alde nabarmenak daude Anoeta, Tolosaldea eta Gipuzkoaren artean, hurrengo taulan ikus dezakegunez:

16. Taula. Desgaitasun balorazioa duten adinekoen errealitatea (2008-2023)

	2008			2024		
	N	%	Biz. N*	N	%	Biz. N*
Anoeta ≥65	53	22,55%	235	77	17,82%	432
Tolosaldea ≥65	1.520	19,60%	7.755	1.944	18,32%	10.610
Gipuzkoa ≥65	19.289	14,96%	128.911	32.865	19,03%	172.682

Iturria: Behagi

Anoetaren kasuan, nabarmentzekoa da aitortutako desgaitasuna duten pertsonen ehunekoak behera egin duela, 2008an biztanleriaren % 22,55 izatetik 2024an %17,82 izatera. Tolosaldean

ere gutxitzen da desgaitasuna duten pertsonen ehunekoa, baina modu mugatuagoan. Bi kasuetan, zenbaki absolutuek gora egin dute 2008aren aldean, biztanleriak gora egin duen bezala. Hala ere, desgaitasuna duten pertsonen kopurua eta biztanle-kopurua zer proportziotan handitu diren aztertzen badugu, honako hau ikusiko dugu: Anoetaren kasuan, adibidez, desgaitasuna duten adinekoen kopurua %45,28 igo da, eta 65 urtetik gorakoaren kopurua, berriz, %84. Beraz, Tolosaldean zein Anoetan desgaitasun-tasa orokorrean murriztu da. Aldiz, kontrakoa gertatzen da Gipuzkoaren kasuan, desgaitasunen bat duten adinekoen kopurua %4 igo baita adineko pertsona guztiekiko.

Lehenago aipatu dugun bezala, Anoetako desgaitasun-tasa orokorra jaitsi da 2008tik. Hurrengo taulan zehatzago aztertuko dugu, adin-taldean arabera banakatuta, nola banatzen den gaur egun desgaitasun-tasa.

6.2 Desgaitasun balorazioa duen biztanleria adin-tartearen arabera

17. Taula. Desgaitasun balorazioa duen biztanleria (2008-2024)						
	2008			2024		
	N	%*	Biz. N	N	%*	Biz. N
0-5 urte	0	%0,00	124	1	%0,85	118
6-17 urte	0	%0,00	232	3	%1,03	290
18-64 urte	72	%5,90	1.220	53	%4,27	1.242
65-79 urte	42	%24,71	170	44	%12,98	339
80 urte eta gehiago	11	%16,92	65	33	%35,49	93
Adin guztiak	125	%6,90	1.811	134	%6,45	2.082

Iturria: Behagi

Adin-taldean arabera desgloseari erreparatzen badiogu, **hazkunderik esanguratsuen 80 urtetik gorako pertsonen artean gertatu** da: desgaitasun-tasa %16,92tik %35,49ra igo da. Horrek, alde batetik, berresten du desgaitasuna zahartzaroan errealitate estrukturala bihurtzen dela eta zenbat eta zaharrago, desgaitasuna graduren bat aitortuta izateko aukera altuagoa. Bestalde, egungo 80 urtetik gorakoaren arteko asko 2008an 65 eta 79 urte adin-tartean egongo zirela. Beraz, hazkunde hori ere azaltzen da zahartze prozesu natural batengatik. 2008an 65-79 urteko adin tartean zeudenak, egun 80 urte eta gehiago dituzte.

Nolanahi ere, 2024an 65 eta 79 urte bitarteko pertsonak aztertuz gero, ikusiko dugu egoera hobetu egiten dela 2008ko egoerarekin konparatuz, desgaitasuna aitortuta dutenen proportzioa erdira jaisten da. 18 eta 64 urte bitarteko pertsona desgaituen proportzioak ere behera egin du

pixka bat baita ere. Izan ere, desgaitasun-tasa orokorra pixka bat jaitsi da 2008ko datuekin konparatuz.

6.3 Desgaitasun balorazioa duten adinekoen alderaketa historikoa gradua eta generoaren arabera (2008-2024)

18. Taula. Desgaitasun balorazioa duten adinekoen bilakaera gradua eta generoaren arabera (2008-2024)							
		2008			2024		
		N	%	Biz	N	%	Biz
% 33-% 64 gradua							
Gizonak	65-79 urte	22	%25,29	87	25	%15,63	160
	80 urte eta gehiago	0	%0,00	18	15	%36,59	41
Emakumeak	65-79 urte	8	%9,64	83	11	%6,15	179
	80 urte eta gehiago	4	%8,51	47	11	%21,15	52
Guztira	65-79 urte	30	%17,65	170	36	%10,62	339
	80 urte eta gehiago	4	%6,15	65	26	%27,96	93
% 65-% 74 gradua							
Gizonak	65-79 urte	5	%5,75	87	3	%1,88	160
	80 urte eta gehiago	1	%5,56	18	0	%0,00	41
Emakumeak	65-79 urte	1	%1,20	83	1	%0,56	179
	80 urte eta gehiago	0	%0,00	47	2	%3,85	52
Guztira	65-79 urte	6	%3,53	170	4	%1,18	339
	80 urte eta gehiago	1	%1,54	65	2	%2,15	93
≥% 75 gradua							
Gizonak	65-79 urte	1	%1,15%	87	1	%0,63	160
	80 urte eta gehiago	0	%0,00	18	2	%4,88	41
Emakumeak	65-79 urte	5	%6,02	83	3	%1,68	179
	80 urte eta gehiago	6	%12,77	47	3	%5,77	52
Guztira	65-79 urte	6	%3,53	170	4	%1,18	339
	80 urte eta gehiago	6	9,23	65	5	%5,38	93
Edozein gradu							
Gizonak	65-79 urte	28	%32,18	87	29	%18,13	160
	80 urte eta gehiago	1	%5,56	18	17	%41,46	41
Emakumeak	65-79 urte	14	%16,87	83	15	%8,38	179
	80 urte eta gehiago	10	%21,28	47	16	%30,77	52
Guztira	65-79 urte	42	%24,71	170	44	%12,98	339
	80 urte eta gehiago	11	%16,92	65	33	%35,48	93

Iturria: Behagi eta INE

Taulan ikus daitekeenez, 2008 eta 2024 urteen artean aldaketak egon dira bai desgaitasun-graduen banaketan bai generoaren arabera. Oro har, **desgaitasun ertaina** adierazten duen %33–%64 tarteko gradua da ohikoena 65 urtetik gorakoen artean, eta gradu horretan ikusten da bilakaerarik nabarmenena. 65-79 urte bitarteko gizonen kasuan, gradu horretan dauden pertsonen kopurua apur bat igo da (22tik 25era), baina talde horren barruko prebalentzia %25,29tik %15,63ra jaitsi da, adin-tarte horretan gizon kopuru osoa asko hazi delako. Emakumeen artean joera antzekoa da: kasu-kopuruak zertxobait gora egin du, baina proportzioak behera egin du (%9,64tik %6,15era). Aldiz, 80 urtetik gorakoen artean gertatzen da aldaketa esanguratsuenak: 2008an ia ez zegoen gizonik gradu horretan, eta 2024an talde horretako gizonen %36,59k dute %33–%64 bitarteko desgaitasuna; emakumeen artean ere proportzioa %8,51tik %21,15era igo da. Hau da, desgaitasun ertaina bereziki pilatzen da gaur egun 80 urtetik gorakoen artean.


%65–%74 tarteko gradua duten pertsonak gutxiago dira, eta gradu horren pisua txikiagoa bihurtu da 65-79 urte arteko taldean. Gizon eta emakumeen artean, adin-tarte horretan gradu horretako prebalentzia erdira edo gehiago jaitsi da; 80 urtetik gorakoen artean, berriz, kasu-kopurua oso txikia izaten jarraitzen du, nahiz eta emakumeen artean 0 kasutik 2 kasura igaro den. Beraz, gradu ertain-altuko desgaitasuna (%65–%74 tartekoa) errealitate bat bada ere, ez du pisu handirik Anoetako 65 urtetik gorako biztanleria desgaituen artean, eta ez da joera nagusietako bat.

Aitzitik, **%75etik gorako desgaitasun-gradua** duten pertsonen kasuan –desgaitasun larriagoa adierazten duen gradua–, beheranzko joera orokorra antzematen da. 65-79 urte bitarteko talde osoan, gradu horretako prebalentzia %3,53tik %1,18ra jaitsi da, bai gizonen bai emakumeen artean. 80 urtetik gorakoen kasuan ere, guztizko portzentajea behera doa: 2008an talde horren %9,23k zeukan %75etik gorako desgaitasuna, eta 2024an %5,38 da. Emakumeen artean jaitsiera bereziki esanguratsua da: 80 urtetik gorakoen artean, %12,77tik %5,77ra pasatu da. Gizonen kasuan, kontrara, 2008an ez zegoen kasurik 80 urtetik gorakoen artean, eta 2024an talde horren %4,88k du desgaitasun-maila handia; hala ere, kopuru absolutuak txikiak dira oraindik ere.

Azkenik, gradu guztiak batera hartuta (**edozein gradu**), argi ikusten da **desgaitasunaren adinaren arabera birbanaketa** gertatu dela. 65-79 urte bitarteko taldean, desgaitasun-graduren bat duten pertsonen portzentajea %24,71tik %12,98ra jaitsi da, eta jaitsiera hori nabariagoa da emakumeen artean. 80 urtetik gorakoen artean, ordea, kontrako joera ikusten da: 2008an talde horren %27,69k zuen desgaitasun-graduren bat, eta 2024an %36,56k. Gainera, 80 urtetik gorako gizonen kasuan gorakada bereziki bortitza da (%5,56tik %41,46ra), eta emakumeen artean ere

oso maila altua mantentzen da (%34,04tik %40,38ra). Horrek berresten du desgaitasuna, mendekotasunaren antzera, gero eta gehiago dela **zahartzaro aurreratuan kontzentratzen den errealitate estrukturala**, eta genero desberdintasunak ere agerian uzten ditu, emakumeek desgaitasun-graduren bat izateko aukera handiagoa baitute eta, sarritan, zaintza-lanetan ere protagonismo handiagoa baitute.

6.4 Desgaitasun graduren bat aitortua duten adinekoak generoaren arabera



10. Grafika. Iturria: Zabalduz, Behagi datuen oinarrian

10. grafikoari erreparatuz gero, 65 eta 79 urte bitarteko gizonen artean desgaitasun kasuen prebalentzia handia nabarmentzen da. Gainera, alde nabarmena dago 2008 eta 2024 urteen artean: desgaitasuna duten 80 urtetik gorako gizonen proportzioa nabarmen handitzen da. Litekeena da 2008an desgaitasunen bat zuten gizon horietako asko (65-79) bigarren adin-tartean kokatzea gaur egun. Emakumeen kasuan, 2008ko eta 2024ko proportzioak bere horretan dirau, baina bi adin-tarteetan kasuak igo egin dira, batez ere 80 urtetik gorako udalerrietan.

7. Ondorio nagusiak

1. Biztanleria hazkunde nabarmena ematen da, batez bestekoa baino handiagoa.

2000etik 2024ra Anoetak %21,96 hazkundea izan du (1.707 biztanletik 2.082ra), Gipuzkoak eta EAEk duten hazkunde orokorra baino handiagoa. Kontuan hartuta Anoetako jaiotza-tasaren

bilakaera eta hazkunde begetatiboa (migrazioa kontuan hartzen ez duena) zein den, ez da berez azaltzen eman den hazkunde maila. Honek adierazten du herriak erakargarritasun maila handia izan duela azken bi hamarkadetan, eta gero eta pertsona eta familia gehiago aukera dezaketela Anoeta bai bizileku gisa bai bizi-proiektu berriak errotzeko gune gisa.

2. Anoetako biztanleria zahartzen ari da eta joera hori areagotzen jarraituko du etorkizunean

Gaur egun 65 urtetik gorakoak biztanleriaren %20,7 dira, eta 2001arekin alderatuta proportzio horrek %78,5eko gorakada izan du. 2034rako proiektzioen arabera, adin txikikoen kopurua hazten jarraituko badu ere, hazkunde handiena 65 urtetik gorakoen taldean espero da; aldi berean, 20–64 urte bitarteko taldeak oraindik gehiengoa osatzen du (%57,9), baina azken urteetan pisua galtzen ari da beste adin-tarteekin alderatuta. Testuinguru honetan, hazkunde begetatiboa ia nulua eta jaiotza-tasa baxua direnean, Anoetaren kasuan bezala, belaunaldi berriek ez dituzte aurrekoak ordezkatzeko, eta horrek ondorio zuzenak ditu bai egitura demografikoan bai gizarte-dinamikan.

3. Adinekoen feminizazioa presente dago, baina Anoetan moderatuagoa eta beheranzko joeran

65 urtetik gorakoen artean emakumeak dira nagusi, batez ere 75 urtetik gora. Hala ere, feminizazio indizea txikiagoa da Anoetan Gipuzkoan eta EAEn baino, eta azken urteetan nabarmen jaitsi da. Horrek bi gauza adierazten ditu: emakumeen bizi-itxaropena altua izaten jarraitzen duela, baina baita ere gizonen bizi-itxaropena hobetzen ari dela, eta etorkizun hurbilean adinekoen artean genero-oreka handiagoa izango dela.

4. Adinekoen artean ematen dira mendekotasun eta desgaitasun egoera gehienak.

65–79 urte bitarteko taldean mendekotasun eta desgaitasun graduen prebalentzia jaitsi edo egonkor mantentzen bada ere, 80 urtetik gorakoen artean igoera nabarmena dago. Honek adierazten du ezintasun eta mendekotasun egoerak gero eta gehiago kontzentratzen direla bizitzaren etapa honetan eta presentzia hori ez dela fenomeno puntual bat, baizik eta egiturazko errealitate bat. Gainera, nahiz eta 80 urtetik gora emakumeek mendekotasun eta desgaitasun graduak izateko probabilitate handiagoa duten, azken urteetan 80 urtetik gorako gizonen artean ere igoera oso handia nabarmendu mendekotasunean zein desgaitasunean.

8. Etorkizuneko erronkak: Zahartzen ari den herri bat modu integratuan planifikatzea

Azterketa honek Anoetako egungo argazki soziodemografikoaren irakurketa eta datozen urteetarako joeren markoa eskaintzen du. Argazki horretatik abiatuta, honako erronka estrategiko hauek nabarmentzen dira, zaintza-ekosistema bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzeko.

1. Zaintza-eredu publiko eta komunitarioa indartzea.

Txosten honetan aurkeztutako aurreikuspenak betetzen badira, adinekoen kopurua biderkatuko da hamar urtetan. Gehiago izango dira eta, bizi itxaropenak handitzen jarraitzen duenez, luzeago biziko dira. Berez, horrek hainbat baliabide eta neurriak hartzera behartuko gaitu gizarte gisa. Baina are gehiago jakinda, gainera, mendekotasuna eta desgaitasuna kasuak bereziki pilatzen direla 80 urtetik gorakoen artean. Beraz, adinekoen kopurua handitzeaz gain, mendekotasun eta desgaitasun kasuek ere gora egingo dute.

Zaintzak behar dituzten pertsonen kopurua handitzen bada, zaintzaileen kopuruak eta zaintza-denborak ere gora egingo dutela aurreikus daiteke. Testuinguru batean, gainera, zeinetan 20-64 urteko adin tartea (biztanleria aktiboa, zaintza emaile garrantzitsuak) pixkanaka pisua galtzen doan. Egoera honek argi uzten du zaintza eredu berri eta egokitu bat beharko dugula horri aurre egiteko. Ez da soilik zerbitzu gehiago eskaintzea, baizik eta herria osorik adinekoekin adiskidetsuago bihurtzea, zaintzak indartu eta herritarrak inplikatu.

2. Genero-ikuspegitik eraikitako zaintza-sistema: berdintasuna eta banaketa justua

Adinekoen artean emakumeak gehiengoa dira, eta, aldi berean, historikoki haiek izan dira senide eta inguruko zaintzaile nagusiak. Horrek arrisku argia dakar: adineko emakume zaintzaile nekatua izatea eredu errepikatuena. Erronka da genero ikuspegia esplizituki txertatzea zaintza-politikan: gizonen parte-hartzea handitzea zaintzan, zaintza lana sozialki eta ekonomikoki balioestea, etab.

3. Belaunaldi arteko oreka zaindu eta sendotzea.

Gaur gaurkoz Anoetako ratioa EAEkoa baino hobea bada ere, etorkizunean joera hori bere horretan mantenduko denik ezin da ziurtatu. Horregatik, etorkizunerako erronka garrantzitsuenetako bat da herriak gazte eta familia berrientzat erakargarri izaten jarraitzea, eta

horretarako funtsezkoak izango dira etxebizitza eskuragarriagoak, haur eta gazteentzako baliabide egokiak, lan-aukeren sustapena eta aisialdirako eskaintza erakargarria indartzea.